

ARA

Iepa! Ara naiz, taldeko abentura zalea.
Handitan bidaiaria izango naiz!
Mundu osoan zehar bidaiatuko dut, oinez,
trenaz, bizikletaz, kamioi batean, motorrean,
hegazkinean, zepelin batean, edozein modutan!
Bitartean, nire lur-globoa aztertzen ari naiz
etengabe, bisitatuko ditudan lekuak, herriak
eta hiriak non dauden ikasiz. Ez dakizue zenbat
herri dauden Lur planetan! Eta zenbat bizitzeko
modu ezberdin! Eta zenbat pentsatzeko modu
diferente! Ez al da ederra? Munduan bakarrik
zaudela pentsatzen duzunean, hartu lur globo
bat eta ikusi zeinen zabala den!
Bakarrik zaudela? Bai zera!

